IZARRAK ETA LIRAIL PRINTZESA

Javier Alonso
Hiartz Alves
Wendy Ochoa
Paula Pueyo
Uxue Sola

1

LAS ESTRELLAS Y LA PRINCESA LIRAILI

(Pasar a la siguiente lámina)

LAS ESTRELLAS Y LA PRINCESA LIRAILÍ

Javier Alonso
Hiartz Alves
Wendy Ochoa
Paula Pueyo
Uxue Sola

Garai batean, gauzak ez ziren gaur egun diren bezalakoak. Garai hartan ez zen ez ilargirik, ezta izarrik ere.

(Hurrengo irudira pasatu)

Antiguamente la vida no era como lo es ahora. En aquel tiempo no había luna ni estrellas.

(Pasar a la siguiente lámina)

3

Zeruak lurra ukitzen zuen ia-ia eta hodeiak, zer esanik ez, eskura zeuden.
Haurrak ondo baino hobeto ibiltzen ziren. Oso txikiak zirenez, ez zuten zerua buruaz jotzen eta egun osoa ematen zuten hodeiez egindako bolak elkarri botatzen, elurrezko bolak balira bezala.

(Hurrengo irudira pasatu)

El cielo casi tocaba la tierra y las nubes estaban tan cerca que se podían tocar con la mano.
Los niños no tenían ningún problema ya que caminaban muy cómodos. Al ser tan pequeños no tocaban el cielo con la cabeza y pasaban el día jugando con bolas de nube que se tiraban unos a otros, como si fueran bolas de nieve.

(Pasar a la lámina siguiente)

Helduek, ordea, makurturik ibili behar izaten zuten beti zeruarekin kaskarrekorik ez hartzeko. Zerua hain hurbil, hain behean egoteak makina bat buruhauste eragiten zien. Gauean neka-neka eginda egoten ziren, egun osoan makurturik ibili ondoren. Gainera, gauak ilunak eta tristeak ziren ilargirik eta izarrik ez zegoelako.

(Hurrengo irudira pasatu)

Los mayores, sin embargo, debían caminar siempre agachados para no darse coscorrones con el cielo. El hecho de tener el cielo tan cerca les provocaba muchos dolores de cabeza. Por la noche los mayores siempre acababan muy cansados después de una jornada entera agachados. Además, las noches eran muy oscuras y tristes ya que no había luna ni estrellas.

(Pasar a la lámina siguiente)



Urruneko herrialde batean printzesa eder bat bizi zen. Izena ere oso polita zuen: *Liraili* (Liraili-k "*egunsentia*" esan nahi omen zuen, haien hizkuntzan).
Arratsalde gozo batean Liraili jauregiko lorategian zegoen josten.

(Hurrengo irudira pasatu)

En un país muy lejano vivía una bella princesa. La princesa además de bella tenía un nombre muy bonito: *Liraili* (Liraili, al parecer, significaba amanecer en el idioma de aquel país).
En una hermosa tarde de verano Liraili se encontraba cosiendo en el jardín de palacio.

(Pasar a la lámina siguiente)



Aldean eramaten zituen bitxiak oso astunak zirenez, buruko diadema, belarritakoak, eraztunak eta diamantezko lepoko luzea kendu eta bi hodeiren artean zintzilik utzi zituen. "*Orain askoz hobeto nago*", pentsatu zuen Lirailik zama hori arinduta.

(Hurrengo irudira pasatu)

Como sus joyas eran muy pesadas, decidió desprenderse de su diadema, anillos, pendientes y de su collar de diamantes, y los dejó colgando sobre dos nubes. "Ahora me encuentro mucho mejor" pensó Liraili tras haberse quitado ese peso de encima.

(Pasar a la lámina siguiente)

Dena den, bazuen beste kezka bat, beste buruhauste bat: josteari utzi eta burua altxatzen zuen bakoitzean zeru zerua buruaz jotzen zuen. Horregatik bere nebari laguntza eskatzea erabaki zuen.

A pesar de todo, Liraili tenía otra preocupación: cada vez que dejaba de coser y levantaba la cabeza se daba un buen coscorrón contra el cielo. Por ese motivo decidió pedir ayuda a su hermano.

(Hurrengo irudira pasatu)

(Pasar a la lámina siguiente)

Pook!

Neba *Malakas* deitzen zen (Malakas hitzak, "*sendoa, indartsua*" esan nahi omen zuen). Izan ere, herrialde hartako gizonik indartsuena bera zen. Lirailik hauxe esan zion Malakasi:

-*Malakas, bada garaia zure indarra jendearen onerako erabil dezazun, jendeari laguntzeko".*

-"*Zer nahi duzu egitea, Liraili?".*

-"*Jaso ezazu zerua gorago. Horrela ez dugu zerupean makurturik ibili beharko".*

(Hurrengo irudira pasatu)

Su hermano se llamaba Malakas (la palabra malakas, en el idioma de aquel país, quería decir "*fuerte, vigoroso"*). De hecho, Malakas era el hombre más fuerte de aquel país. Liraili le dijo lo siguiente:

-" *Malakas, ya es hora de que utilices tu fuerza por el bien de la comunidad, para ayudar a los demás".*

- *"¿En qué te puedo ayudar, Liraili?"*

- *"Levanta el cielo todo lo que puedas. Así, ya no tendremos que caminar siempre agachados".*

(Pasar a la lámina siguiente)

Malakas zeruari bultzaka hasi zen. Beno, bultzada bakarra egin zion, baina oso handia, itzelezkoa. Zeruak gorako bidea hartu zuen eta ez zen berehala gelditu: egunak joan egunak etorri, zerua urrunduz joan zen.

(Hurrengo irudira pasatu)

Malakas comenzó a empujar el cielo. Bueno, mejor dicho, dio al cielo un único empujón, pero enorme. El cielo se fue alejando y alejando y no paró: los días y las noches pasaban y el cielo seguía alejándose.

(Pasar a la lámina siguiente)

Baina zer ahaztuko eta *Lirailiri* bitxiak hodeietatik hartzea ahaztu! Ooooh! Lastima! Ordutik aurrera bere buruko diadema zeruan zintzilik dago, eta guk *"Ilargia"* deitzen diogu. Baina bitxi gehiago ere ahaztu zuen: belarritakoak, eraztunak eta diamantezko lepokoa. Han goian daude guztiak: *Izarrak*.

(Hurrengo irudira pasatu)

Pero ¿qué se le olvidó a Liraili? ¡Olvidó sus joyas colgadas en las nubes! ¡Ooooh! ¡Lástima! Desde entonces su diadema cuelga en el cielo, y nosotros la llamamos "luna". Pero también olvido más joyas: pendientes, anillos y su collar de diamantes. Todas están en el cielo: son las estrellas.

(Pasar a la lámina siguiente)

IZARRAK ETA PRINTZESA LIRAILI

ILUSTRATZAILEAK: Javier Alonso, Hiartz Alves, Wendy Ochoa, Paula Pueyo, Uxue Sola
IPUINAREN JATORRIA: http://www.teatro-testuak.com/ipuinak.html
EGOKITZAPENA: Ricardo Erbiti (Irakaslea)
TALDEA: DBH3 2009-2010 ikasturtea. IES Ribera del Arga. Azkoien (Nafarroa)

ILUSTRADORES: Javier Alonso, Hiartz Alves, Wendy Ochoa, Paula Pueyo, Uxue Sola
PROCEDENCIA DEL TEXTO: http://www.teatro-testuak.com/ipuinak.html
ADAPTACIÓN: Ricardo Erbiti (Profesor)
GRUPO: 3ºESO CURSO 2009-2010. IES Ribera del Arga. Peralta (Navarra)